OÑATIKO UDALA
Telefonoa: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, ZERBITZU KONTRATU HONEN LEHIAKETA ARAUTZEKO: ZUBIKOA KIROLDEGIRAKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ZERBITZUAK KONTRATATZEA.

1.- Kontratuaren xedea ........ 2 or.
2.- Zerbitzuak emateko lekua ........ 2 or.
3.- Egin beharreko lanak ........ 2 or.
4.- Langileak ........ 3 or.
5.- Hizkuntz betebeharrak ........ 3 or.
A. Hizkuntza gaitasuna ........ 3 or.
B. Hizkuntza paisaia ........ 3 or.
C. Erabilera herritarrekin ........ 3 or.
D. Administrazioarekin erabilera ........ 3 or.
6.- Adjudikaziodunaren betebeharrak ........ 4 or.
7.-Oñatiko Udalaren betebeharrak ........ 7 or.
8.- Ordutegia eta egutegia ........ 8 or.
9.- Adjudikatzeko prozedura ........ 8 or.

I. Eranskina ........ 10 or.
II. Eranskina ........ 11 or.

PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS QUE REGULA EL CONCURSO DEL SIGUIENTE CONTRATO DE SERVICIOS: CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE ACTIVIDAD FISICO-DEPORTIVA PARA ZUBIKOA KIROLDEGIA

1.- Objeto del Contrato ........ 12 pg.
2.- Lugar de prestación ........ 12 pg.
3.- Tareas a realizar ........ 12 pg.
4.- Personal ........ 13 pg.
5.-Obligaciones lingüísticas ........ 13 pg.
A. Competencias lingüísticas ........ 13 pg.
B. Paisaje lingüístico ........ 14 pg.
C. Uso con la ciudadanía ........ 14 pg.
D. Uso con la administración ........ 14 pg.
6.-Obligaciones del adjudicatario ........ 14 pg.
7. Obligaciones del Ayuntamiento de Oñati ........ 17 pg.
8. Horario y calendario ........ 18 pg.
9.-Procedimiento de adjudicación........ 18 pg.

Anexo I ........ 21 pg.
Anexo II ........ 22 pg.

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, ZERBITZU KONTRATU HONEN LEHIAKETA ARAUTZEKO: ZUBIKOA KIROLDEGIRAKO JARDUERA FISIKOA ETA KIROL ZERBITZUAK KONTRATATZEA.**

1.- Kontratuaren xedea:

Baldintza Agiri honen bitartez kanpo-lehiaketa bidez kirol zerbitzuak kontratatzeko oinarriak ezarri nahi dira, Zubikoa Kiroldegia zuzendaritzaren menpe honako zerbitzu hauek planifikatu, antolatu, koordinatu, komunikatu eta emateko:

Gimnasiak eta fitness zerbitzuak:

Elbarrientzako gimnasia egokitua, Gimnasia terapeutikoa, Aerobica, Gazteentzako Aerobica, Mantentze Gimnasia, Fit-bike, Pilates, Pilates terapeutikoa, hirugarren adinekoentzako Gimnasia, Body-tono, Zumba, eta erdiondoko Gimnasia, Gimnasia abdominal hipopresibaia, Running eta Gimnasia armonikoa.

Zerbitzuen eskaintza alda daiteke bai horiek izan ditzaketen eskaera mailagatik, baita ere honelako beste baldintzegatik ere: Zubikoa Kiroldegiak markatutako eskaintza irizpideak, berrikuntzan ekintza eta ekimenengatik, zerbitzuen berantolaketa, etabar.

2.- Zerbitzuak emateko lekua:

Zerbitzuak Oñatiko Udal kirol instalazioetan emango dira.

3.- Egin beharreko lanak:

Erakunde adjudikaziodunak egin beharreko lana honako funtzio eta ekintzak jasotzen ditu:

- Zerbitzuen planing proposamena egin / fitness eta gimnasia zerbitzuen urteko egutegia egin
- Porposatu eta exkutatu komunikazio diagrama eta eskaini beharreko zerbiztuen koordinazioa
- Zerbitzuen komunikazio eta publizitate proposamena egin eta exekutatu
- Eskaini beharreko zerbitzuen publizitate kartelak egin eta jarri
- Eskainitako zerbitzuen ekintza programa egin eta abian jarri dagokion egutegi eta ordutegian
- Ekintzetara asistentzi kontrola eta dagokion hileko, hiruhilabeteko eta urteko estadistika
- Asebetetze galdetegiak egin eta pasa, eta dagokion emaitza estadistikoak memoria batean jaso, eta horri egokituriko hobekuntza plana egin eta garatu
- Fitness geletako materiala biltegietako inbentarioa egin eta eguneratu, eta materiala berritatzeko proposmenak egin
- Erreklamazio, eta/edo proposamenen eta inzidentzien kudeaketa
- Ekintzen urteko memoria egin

Eginbeharreko lanak Zubikoa Kiroldegiarekin koordinazio hestuan egingo ditu erakunde adjudikaziodunak, eta horien onarpena eta exekuzioa entitatearen zuzendaritzaren onespena behar dute.

4.- Langileak:

Monitoreek, dagokien fitness/gimnasiako edo bestelako ekintzetako monitore-titulua izan beharko dute. Dena den, honako titulurun baten jabe izan beharko dira: TAFYD, soin hezkuntzako espezialitateako irakas gradua, eta/edo soin hezkuntza lizentziatura, eta Gimnasia terapeutikoa zerbitzua zuzentzeko, monitoreak fisioterapeuta titulua ere izan ahal du.

Kontratuak irauten duen bitartean enpresak monitoreren bat aldatu nahi badu, Kiroldegiko Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio eta haren ordezkoak eskatutako baldintzak bete beharko ditu titulazioan eta hizkuntza-gaitasunean.

Zerbitzua esleitu zaion enpresak bere gain hartu beharko ditu gaur egun zerbitzua ematen duten langileak (ikus II. Eranskina), eta subrogatuta geldituko da lehiaketan emandako zerbitzuen egungo beharrei erantzuteko aurreko esleipendunek lan arloan zituzten eskubide eta betebeharrei dagokienean.

Langile horien arduradun bakarra esleipenduna izango da, berak izango baititu nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak, eta bere menpeko langileekin lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu.

5.-Hizkuntz betebeharrak

A. Hizkuntza gaitasuna

Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko du Erakunde adjudikaziodunak

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar du(t)en pertsonak/ek eskatutako hizkuntza gaitasuna dauka(te)la ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo).

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

B. Hizkuntza paisaia

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan.
Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean.
Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

C. Erabilera herritarrekin

Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira.

Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da. Modu berean, era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Euskara Zerbitzura eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

D. Administrazioarekin erabilera

Enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) administrazioaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, hau da, euskaraz.

<u>6.- Adjudikaziodunaren betebeharrak:</u>

A.-Zerbitzua gauzatzea eta antolatzea, eta Baldintza Agiri honen kontratuan ezarritako baldintzen arabera.

B.- Jarduerak antolatzeko udal kirol zerbitzuaren egitasmoko ekintzak aurrera eramatea (abian ipinitako egitasmoak exekutatu, zerrendak irakurri, ziurtagiriak ikasleen artean banatzea, mailaz mailako erregistroa eraman eta jardueren egitasmoan zehaztu daitezkeenak). Horretarako, bai enpresak eta baita bertako langileek ere, datu pertsonalen babeserako legeak zehaztutakoa beteko dute.

D. Hitzarturiko epean zerbitzua ematea.

E.-Zerbitzua egoki gauzatzen dela zaintzea. Horretarako, behar diren argibideak eman ahal izango ditu, baina Zubikoa Kiroldegiak izango du zerbitzua egoki ematen dela bermatzeko eskumena.

F.-Zerbitzu hauek eskaintzerakoan udalari edo hirugarrenei egindako kalte-galerak ordaintzea. Horretarako, sor litezkeen edo zerbitzua eskaintzeak ekar ditzakeen kalteak

estaltzeko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetu beharko du, gutxienez, 300.000 euroko kapitalaz

G.-Kontratatuteriko zerbitzua ematea, Udalaren barneko edo kanpoko egoera gorabehera, baita lan gatazkak eta zerbitzua arazorik gabe gauzatzeko bestelako edozein oztopo gertatu arren ere.

H.-Udalak zerbitzua emateko utzitako instalazioak, tresnak eta altzariak egoki erabiltzea eta mantentzea.

I.-Ezingo dizkio beste inori alokatu kontratuaren eskubideak eta betebeharrak.

J.-Gauzatu beharreko jarduerari legez aplika dakizkiokeen betebeharrak betetzea.

K.-Enpresak Zerbitzuaren barne funtzionamendurako arauetan ezarritako eta Agiri honetan zehaztutako egun eta orduetan eman beharko ditu zerbitzuak.

L.- Enpresak euskaraz nahiz gaztelaniaz eman beharko ditu zerbitzuak, ahoz nahiz idatziz, oinarri hauetako"Hizkuntza betebeharrak" 10. atalaren arabera.

M.- Kontratatzen den enpresak ezingo du merkataritza- edo politika-arloko kartelik, idatzirik edo iragarkirik jarri, ez eta inolako obrarik egin ere, Zubikoa Kiroldegiaren baimenik izan gabe.

N.- Arduradun-koordinatzaile bat izendatzea Udalarekin solaskide zuzena izateko. Solaskide horrek baldintza agiri honetako 10. baldintzan eskatzen den hizkuntz prestakuntza izan beharko du, internet eta ofimatika ezagutza aurreratuak, eta gutxienez 2 urteko esperientzia taldeen kudeaketan.

O.- Udal kirol zerbitzuak ezarritako koordinazio bileretara joatea, koordinazio eta ebaluazio mekanismoak betez. Batzuetan, koordinazio bilera horietan, ezinbestean, sorospen eta atezaintza langileek eta kirol monitoreek parte hartu beharko dute; beraz, kasu horietan, Udalak horrela erabakitakoan, derrigorrezkoa izango da langile horiek bertan egotea.

P.- Zerbitzuak emateko beharrezko langileak kontratatzea. Kontratatutako langileei dagokionez, kontratuen kopiak aurkeztu beharko dira, eta baita Gizarte Segurantzan alta eman izana egiaztatzeko dokumentuak ere, gehienez ere 10 eguneko epean kontratazio egunetik kontatzen hasita.

Zerbitzua esleitu zaion enpresak bere gain hartu beharko ditu gaur egun zerbitzua ematen duten langileak, eta subrogatuta geldituko da lehiaketan emandako zerbitzuen egungo beharrei erantzuteko aurreko esleipendunek lan arloan zituzten eskubide eta betebeharrei dagokienean.

Langile horien arduradun bakarra esleipenduna izango da, berak izango baititu nagusiaren eskubide eta betebehar guztiak, eta bere menpeko langileekin lan arloan, Gizarte Segurantzan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden xedapen guztiak bete beharko ditu.

Langileren batek lanean edozein motatako istripu edo kalteren bat jasanez gero, esleipendunak indarrean dauden arauetan xedatutakoa beteko du bere erantzukizunpean, eta Udalak ez du horretan inolako erantzukizunik izango. Hori

guztiori bermatzeko, gutxienez 100.000 eurorengatik aseguratu beharko du erantzukizun zibileko polizan sartuta egon beharko den "erantzukizun patronala” izeneko arriskua.

Kontratuak irauten duen bitartean langile bat ordezkatu behar baldin badago (erretiroa, heriotza, borondatezko baja enpresan, kaleratzea, elbarritasun iraunkorra…) edo zerbitzuaren beharrengatik aldaketaren bat egin behar baldin bada, eskatutako profila betetzen duen ordezko langilea jarri beharko du esleipendunak.

Udalak edozein momentutan eska diezaioke betebehar horiek betetzen dituela egiaztatzea.

Kontratua amaitu ondoren, Udala ez da esleipendunak kontratatutako edo berarentzako lanean dabilen langileen kargu egingo.

Q.- Lan araudiko, Gizarte Segurantzako eta 31/1995 Legeko (Laneko Arriskuen Prebentzioko Legea) eta hori garatzen duten errege dekretuetako xedapenak betetzea eta baita zerga arlokoak ere, horiek ez betetzeagatik egon daitezkeen erantzukizunetatik erabat libre geldituz Udala.

R.- Kontrataturiko zerbitzuak ikuskapen eta zaintzapean egongo dira etengabe, eta esleipendunak, kirol zerbitzuko arduradunek horrela eskatutakoan, egindako lanen eta zerbitzuko gorabeherei buruzko txostena aurkeztu beharko du, eta betebehar hori betetzeko beharrezko izan daitezkeen agiri guztiak aurkeztera derrigortuta dago, bereziki, enpresa jardueren koordinazioari eta lan segurantzari buruzkoak, guztia ere, Udalaren edozein erantzukizun subsidiario kentzeko helburuarekin. Kirol zerbitzuko arduradunek zerbitzua emango duen enpresarekin harreman errazak izan behar ditu, kontratuari dagozkion datu, xehetasun eta gorabehera garrantzitsuenen berri ahalik eta modurik eraginkorrenean izateko. Horretarako, esleipendunak honako hauek egin beharko ditu:

- Kontratuko zerbitzu guztiei buruzko txosten eta azterlanak prestatu, zerbitzuaren arduradunek horrela agindutakoan.
- Zerrenda bat aurkeztu zerbitzua emango duten langile guztien izen-abizenekin.
- Egindako ordezkapenen zerrenda aurkeztu hilero.
- Komunikazio-diagrama bat aurkeztu; bertan, zerbitzuaren arduradunarekin eta enpresarekin komunikatuko diren pertsonak agertu beharko dira, pertsona horietako bakoitzaren eginkizunak eta informazioaren kudeaketa egokirako erabiliko diren komunikazio kanalak zeintzuk izango diren zehaztuz. Enpresak, bere komunikazio planean jaso beharko du kontratu orduetan, derrigorrez, arduradun bat beti egongo dela aurkitzeko moduan gerta daitezkeen ezusteak konpontzeko. Arduradun horrekiko harremana telefono mugikor baten eta posta elektroniko helbide baten bidez egingo da.
- Ebaluazio txostenetan informazio hau jaso beharko da: datu kuantitatiboak (bertaratzea, parte hartzea jardueretan, baliabide materialak...), datu kualitatiboak (herritarren asebetetze maila, jarrerak, balioespenak, genero perspektiba...) eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak.
- Ebaluazioa egiteko hainbat une aurreikusten ditu kirol sailak: eguneroko ebaluazioa, hiruhilekoa eta urtekoa. Urteko txostenak ikasturte bukaeran aurkeztuko dira, eguneroko ebaluazioa dagokion eguneko fitxa betetzean egingo da, eta hiru hilean behin ebaluazio txostenak aurkeztuko dira Udalean, eskaintza bakoitzeko txosten bat; dagozkien balioespenak egin

ondoren, hurrengo hiru hilekorako plangintzak zehaztuko dira elkarlanean. Bertan gutxienez, eduki hauek jasoko dira:

1. PERTSONALA:
    - Pertsona kopuruari buruzko informazio orokorra.
    - Sortutako gorabeherak eta hartutako konponbideak.
    - Ordezkapenak.
2. GORABEHERAK:
    - Inzidentzien erlazioa
    - Inzidentzien kudeaketa
    - Instalazioarekin lotutakoak (mantentze-lanak, espazioak eta materialak).
3. KOMUNIKAZIOA:
    - Agenteen arteko harremanen balorazioa.
    - Edukiak, gorabeherak eta hartutako konponbideak edo erabakiak.

<u>7.-Oñatiko Udalaren betebeharrak:</u>

1. Udalari dagokio, bere teknikarien bidez, kontratua ikuskatzea; eta kontratua behar bezala betetzeko jarraibideak eman ahal izango dizkio kontratistari kontratuaren baldintzetan oinarrituz eta kontuan izanik Alkateak izango dituela kontratua zuzentzeko eta ikuskatzeko ahalmenak.
   Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginean eta hori garatzen duen araudian ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz, Administrazioari honako hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea.

2. Kontratuaren esleipendunari kobratzea dagozkion kopuruak ordaintzeari buruz, araudian ezarritako epeetan ordainduko ditu Udalak.

3. Oñatiko Udalak esleipendunaren esku jarriko ditu kirol jardueretarako egokitutako lokalak.

4. Oñatiko Udalaren kontu izango dira esleipendunaren esku jarritako instalazioetako garbitasun eta argindar gastuak.

5. Kontratua kontratistaren gain eta kontura burutuko da.

6. Oñatiko Udalari egotzitako arrazoiengatik –instalazioetan egin beharreko obrak edo beste edozein- zerbitzuak aldi baterako eten behar baldin badira, enpresa esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasoko Udalaren aldetik. Gorabehera horien berri 7 eguneko aurrerapenarekin eman beharko da instalazioetan egin beharreko mantentze-lanengatik eta garbitasunagatik eteten bada zerbitzua (8tik 20 egunera urtean), eta 15 egunekoarekin, instalazioak hobetzeko obrak egin behar direla-eta zerbitzua aldi baterako eteteko beharra dagoenean.

7. Udalak horrela eskatuta, zerbitzuak aldi baterako eten ahal izango dira grebarengatik edo antzeko arrazoiengatik, 24 ordu lehenago horren berri emanda, eta enpresa esleipendunak inolako kalte-ordainik jaso gabe.

8. Oñatiko Udalak plegu honen 10. atalean jasotako hizkuntza irizpideak betetzen direla egiaztatzeko jarraipena egiteko eskumena izango du.

9. Oñatiko Udala da eskainitako zerbitzu guztiak eta bakoitza zuzendu eta kudeatzearen arduraduna.

10. Udalak urtero zerbitzuen tasa eta/edo prezio publikoak zehaztu, proposatu eta onartuko ditu.

11. Zubikoa Kiroldegiak jarriko ditu ekintza taldeen gutxienezko eta gehienezko erabiltzaile kopurua.

8.- Ordutegia eta egutegia:

Jarduerak udal kirol zerbitzuak ezarritako egun eta orduetan ematea (baldintza agiri honetako I. eranskinean zehazten dira), kontuan izanik ordu horiek gutxi gorabeherakoak direla 2014rako eta, Udalak horrela eskatuta, aldatu ahal izango direla. Hurrengo urteetako ordutegiak eta egutegiak aurreko urtea amaitu baino lehen jakinaraziko dira.

Hala ere, zerbitzuaren beharrak aldatuko balira, ordutegia zabaldu edo murriztu egin ahal izango litzateke, hau da, taldeak gutxitu edo gehituko balira, ordu kopurua ere gutxitu edo gehitu egingo litzateke. Halaber, kiroldegiak jarduera berriak egitea exijitu ahal izango du.

9.- Adjudikatzeko prozedura:

Adjudikazioa prozedura ireki bidez eta lehiaketaz egingo da.

Administrazioak lehiaketa eman gabe uzten ez badu, eskaintza onenari emango dio Kontratua, eta ez dio nahita nahiez balio ekonomikoari begiratu beharko.

Kontratua adjudikatzeko irizpide hauek eta puntu hauek hartuko dira kontuan, hala oinarriari nola alternatibei aplikatzeko:

a**.- Eskaintza ekonomikoa** (60 puntu gehienez).

.- Hirugarren adinekoentzako Gimnasian eta elbarrientzako Gimnasia egokituan, orduko 0,60 euro kentzen den bakoitzeko puntu bi gutxiago, eta gehienez 20 puntu.
.- Gainerako ikastaroetan, %0,125 kentzen den bakoitzeko puntu bat, eta guztira 40 puntu.

**b.- Enpresaren eta monitoreen esperientzia** (25 puntu gehienez ere)

Kirol zerbitzuaren antolaketari buruzko txostena eta eskaintza teknikoa. Eskaintza hori biztanle sektore guztietako adin guztiei zuzenduta egon beharko da, kontuan izanik bakoitzaren interes eta espektatibak, eta baita jarduera fisikoa eta kirol jarduera egiteko baldintzak ere. Era berean, eskaintzan osasuna, fiitness-a, kirol errendimendua, gorputz-adierazpena, dantza, erlajazioa eta ongizatea sustatzeko jarduerak sartu

beharko dira, besteak beste. Aipatutako planak, gutxienez, ondorengo edukiak izan beharko ditu:

- Zubikoa Kiroldegiarekin koordinazio prozesuak aurkeztea.
- Lan programa eta langileen antolaketa eta kontrola. Giza baliabideen kudeaketa eta koordinazioa, zeintzuk izango diren langileak eta horien prestakuntza, titulazioa eta esperientzia adieraziz, eta baita zerbitzuari atxikitako solaskidearen ordutegia ere.
- Udalarekin komunikatzeko plana, koordinazio bilerak, bilera motak, fakturazio sistemak eta abar.
- Zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko hartutako neurriak.
- Zerbitzu eta ekintzen urteko egutegia eta programa
- Eskainitako zerbitzuen eta ekintzen azalpen fitxak

Atal honetan, gutxienez, 12,5 puntu lortu beharko dituzte proposamen ezberdinek.

**c.- Hobekuntza proposamena** (15 puntu gehienez ere)

Beste zenbaiten artean honako hobekuntza arloak baloratu ahal izango dira:

- Erabiltzaileak fidelizatzeko estrategiak eta proposamenak
- Publizitatea, infomazioa eta komunikazioaren gaineko proposamenak
- Tendentzia berriak material eta ekipazioan eta
- Kalitatearen hobekuntza
- Kirol sustapenerako estrategiak eta proposamenak

Berdinketak irauten badu, Udalak eskumena izango du kontratua libreki adjudikatzeko bere ustez oro har eskaintza onena egin duen lehiakideari, zerbitzua emango duten langileak, antolaketa, proposamena aurkeztu duen enpresaren baldintza orokorrak, herriaren eta herritarren ezagutza eta eskaintza ekonomikoa kontuan hartuta. Udalak hutsik utzi ahal izango du lehiaketa, kontratua libreki adjudikatzeko fasean uste badu aurkezturiko proposamenak ez direla egokiak Udalaren helburua betetzeko.

Kontratua adjudikatu ostean, interesdunari dei egingo zaio adierazitako egunean eta orduan kontratua formalizatu dezan, Baldintza Agiri honetan zehazturikoaren arabera.

Dei horiei erantzuten ez badie, kontratua gauzatzeko betebeharrak betetzen ez baditu edo aipaturiko baldintzetan egitea galarazten badu, adjudikazioa baliogabetu egingo da zuzenbide osoz, 30/2007 Legearen 35. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

# I. ERANSKINA

## 2013-2014 Ikasturtea Zubikoa Kiroldegia-Fitness zerbitzuak

| | Astelehena | | | | Asteartea | | | | Asteazkena | | | | Osteguna | | | | Ostirala | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Aerobik | Fit bike | Pilates | 4. gela | Aerobik | Fit bike | Pilates | 4. gela | Aerobik | Fit bike | Pilates | 4. gela | Aerobik | Fit bike | Pilates | 4. gela | Aerobik | Fit bike | Pilates | 4. gela |
| 9:15 | | FIt bike1 | Pilates Terap. 1 | | | | Pilates 1 | | Gimnasia Terap. | FIt bike1 | Pilates Terap. 1 | | | | Pilates 1 | | Gimnasia Terap. | | | |
| 10:15 | Mantentze Gimnasia | | G.A.H | Erditze Osteko Gimnasia | Mantentze Gimnasia | | | | Gimnasia Terap. | | G.A.H | Erditze Osteko Gimnasia | Mantentze Gimnasia | | | | Gimnasia Terap. | | Erditze Osteko Gimnasia | |
| 11:15 | 3. adina | | | | 3. adina | | | | | | | | 3. adina | | | | | | | |
| 13:30 | | | | | | FIt bike2 | | | | | | | | FIt bike2 | | | | | | |
| 15:00 | | Fit bike TONO (1,25 ordu) | | | | | Pilates 2 | | | Fit bike TONO (1,25 ordu) | | | | | Pilates 2 | | | | | |
| 16:00 | | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
| 17:15 | | | G.A.H | | | Pilates 3 | | | | | G.A.H | | | Pilates 3 | | | Aero/dantza Txiki 16:45-17:30 | LH | | |
| 18:15 | Mantentze Gimnasia | | Pilates 4 | Egokitua / Running hastapen taldea | Mantentze Gimnasia | FIt bike5 | | | Gimnasia Harmonikoa | Fit bike Gazte | Pilates 4 | Egokitua / Running hastapen taldea | Mantentze Gimnasia | FIt bike5 | Egokitua | | Aero/dantza Gazte 17:30-18:15 | DBH | | |
| 19:15 | Body Tono | FIt bike3 | Pilates Terap. 2 | | Aerobik | FIt bike6 | Pilates 5 | | Bosu Tonifikazioa | FIt bike3 | Pilates Terap. 2 | | Aerobik | FIt bike6 | Pilates 5 | | FUNKY 18:15-19:45 | HELDUAK | | |
| 20:15 . | Gimnasia Harmonikoa | FIt bike4 | G.A.H | | Zumba | FIt bike7 | Pilates 6 | | Body Tono | FIt bike4 | G.A.H | | Zumba | FIt bike7 | Pilates 6 | | | | | |

| | |
|---|---|
| Body tono | Barrak, diskoak eta mankuernen erabileran oinarritzen den tonifikazio zerbitzua/servicion de tonificaión que se basan en el uso de barras, discos y mancuernas |
| bosu tonifikazioa | Bosuan oinarritutako tonifikazio zerbitzu anitza/servicio variado de tonificación basado en el bosu |
| Running hastapen taldea | Korrikan hasi nahi duen edonorentzat: korrika era osasuntsu eta eraginkorrean egiteko taldea<br>Para cualquiera que quiera empezar a correr: grupo para correr de una forma sana y eficaz |

## II. ERANSKINA

Subrogatu beharreko langileak:

| LANGILEAK | ANTZINATASUNA | LANALDIA | KONTRATU KODEA | TALDE PROFESIONALA |
|---|---|---|---|---|
| 1 LANGILEA | 03/01/2011 | 50,92% | 300 (Oharra: Aldi baterako lanerako ezintasuna haurdunaldiagatk | NIVEL III MONITOREA |
| 2 LANGILEA | 17/01/2014 | 50,92% | 510 (Oharra: 1 langilearen ordezkapena | NIVEL III MONITOREA |
| 3 LANGILEA | 01/10/2008 | 41,21% | 300 | NIVEL III MONITOREA |
| 5 LANGILEA | 16/09/2013 | 18% | 501 | NIVEL III MONITOREA |
| 4 LANGILEA | 04/10/2013 | 4,50% | 501 | NIVEL III MONITOREA |
| 6 LANGILEA | 02/10/2013 | 6% | 501 | NIVEL III MONITOREA |
| 7 LANGILEA | 10/10/2013 | 3% | 501 | NIVEL III MONITOREA |

**300 kodedun kontratuak mugagabeak dira.**
**501 kodedun kontratuak aldi baterakoak dira**

**PLIEGO DE CONDICIONES TECNICAS QUE REGULA EL CONCURSO DEL SIGUIENTE CONTRATO DE SERVICIOS: CONTRATACIÓN DE SERVICIOS DE ACTIVIDAD FISICO-DEPORTIVA PARA ZUBIKOA KIROLDEGIA**

1.- Objeto del Contrato:

El objeto del presente pliego de condiciones es la contratación exterior de servicios deportivos que actuaran bajo la dirección de Zubikoa Kiroldegia, para la planificación, organización, coordinación, comunicación e impartición de los siguientes servicios:

Gimnasias y servicios fitness:

Gimnasia adaptada, Gimnasia terapéutica, Aeróbic, Aeróbic jóvenes, Aeróbic-Txiki, Gimnasia de mantenimiento, Fit-bike, Pilates, Pilates terapéutico, Gimnasia para la tercera edad, Body-tono, Zumba, Gimnasia post-parto, Bosu-tonificación, Running, Gimnasia abdominal hipopresiva y Gimnasia armónica

No obstante la oferta de servicios podrá variar, tanto en función de la propia demanda que tengan los servicios, como por otras causas ajenas a esta, como pueden ser: directrices de oferta de servicios marcada por Zubikoa Kiroldegia, innovación en servicios/productos fitness, organización del servicio, etc.

2.- Lugar de prestación

Los servicios se desarrollarán en las instalaciones deportivas municipales de Oñati.

3.- Tareas a realizar

El trabajo a efectuar por la entidad adjudicataria comprenderá las siguientes tareas y funciones:

- Elaborar propuesta de planing / calendario anual de actividades y servicios de gimnasias y fitness
- Elaborar y ejecutar la propuesta de diagrama de comunicación y coordinación de los servicios a ofertar
- Elaborar y ejecutar la propuesta de comunicación y publicidad de los servicios
- Hacer y colocar carteles publicitarios de los servicios a ofertar
- Elaborar y ejecutar el programa de actividades de los diferentes servicios ofertados en el horario y calendario previsto
- Control de asistencia a las actividades y elaboración de estadística mensual, trimestral y anual
- Pasar encuestas de satisfacción, obtención de resultados estadísticos y elaboración de memoria y plan de mejora en relación a resultados

